



©Irene Galera/JRS

HAUR ERREFUXIATUAK

Babesten duen hezkuntza baten alde

 **alboan** |  **entreculturas**

Haur Errefuxiatuak

Munduak **elkarri lotutako krisiei** egin behar die aurre, eta klima-aldaketak, gatazka armatuek eta lekualdatze behartuek elkar indartzen dute, eta eragin bereziki larria dute haurrengan.

Gaur egun, **110 milioi pertsonak baino gehiagok** desplazatu behar izan dute munduan, eta ia **% 40 haurrak eta nerabeak direla** kalkulatzen da, haietako asko babesik, egonkortasunik eta etorkizuneko aukerarik gabe.

Hego Sudanen eta Kongoko Errepublika Demokratikoan, adibidez, milioika haur babesleku edo desplazamendu luzeko testuinguruetan hazten dira, eta **oso sarbide mugatua dute oinarrizko zerbitzuetara**, hala nola hezkuntzara, osasun-arretara eta edateko urera. Testuinguru horiek modu kezagarrian areagotzen dituzte indarkeria, abusuak, sexu-indarkeria, haurren lana edo talde armatuen derrigorrezko erreklutamenduaren arriskuak.

Hezkuntzarako sarbidea funtsezko zutabe bihurtzen da larrialdi-testuinguruetan. Haur lekualdatuentzat, eskola ez da soilik ikasteko gune bat, baizik eta ingurune seguru bat ere bai: erresilientzia indartzen du, indarberritze emozionalari laguntzen dio, eta askotariko indarkeria-moduekiko esposizioa murrizten du. Hala ere, maila globalean, **milioika haur** errefuxiatuk **hezkuntza-sistematik kanpo** jarraitzen dute, batez ere bigarren hezkuntzan, eta horrek arriskuan jartzen ditu haur horien garapena eta etorkizuneko aukerak.

Krisi horiek ez dira fenomeno isolatuak, erantzun koordinatuak, nazioarteko lankidetzak eta ikuspegi integralak eskatzen dituen agertoki global konplexu baten parte baizik, tokikoa globalarekin lotuko dutenak, pertsonak, eta bereziki haurrak, erdigunean jarritik.

2026an, Entreculturas eta Alboanen ikuspegia haur errefuxiatuei laguntzean oinarritzen da, **larrialdi-egoeretan hezkuntza, babesa eta ongizatea** bermatuko duten proiektuen bidez. Gure erakunde bazkideekin batera, hala nola Errefuxiatuentzako Zerbitzu Jesuitarekin (JRS) eta Migratzaileentzako Zerbitzu Jesuitarekin (SJM), migratzaileei eta errefuxiatuei laguntzen diegu, jatorrian, joan-etorrian, helmugan eta itzuleran, eta arreta berezia jartzen dugu hezkuntzarako eskubidearen babesean, funtsezko tresna baita bazterkeria-zikloak eteteko eta etorkizuna eraikitzeko.

Arrazoi horiengatik, 2026an haur errefuxiatuen alde egingo dugu korrika

Hego Sudan



Hego Sudanek krisi humanitario sakon, estruktural eta luze bati egin behar dio aurre, eta **bereziki larria** da **haurrengan**. Gaur egun, **munduko herrialderik txiroena** da, giza garapenaren adierazle kritikoekin, eta bertako biztanleriaren zati handi bat **muturreko zaugarritasun**-egoeran bizi da.

Herrialdeak erronka ugari egin behar die aurre; besteak beste, gatazka-maila handia, gatazka oso bortitza duen herrialdea, oinarritzko gabezia oso larriak uraren, saneamenduaren eta higienearen arloan, zaugarritasun sozioekonomikoa, hondamendi naturalen (uholdeak eta epidemiak, adibidez) eraginpean egotea, erantzuteko gaitasun instituzionalik eza eta oinarritzko azpiegituraren gabeziak.

Krisi horren ondorioz, milioika pertsona, errefuxiatuak, barne-desplazatuak edo itzuliak, bizirik irauteko borrokan ari dira.

Sudango krisiak **12 milioi pertsona baino gehiagoren** desplazamendua eragin du, eta munduko desplazamendu krisirik handiena bihurtu da: **11 milioi** barne-desplazatu baino gehiago daude, eta 4 milioi errefuxiatu eta asilo-eskatzailerik inguru daude ondoko herrialdeetan, hala nola Txaden eta Hego Sudanen (ACNUR, 2025); Sudan da jatorrizko herrialde nagusia, errefuxiatuen % 94 baitu.

Testuinguru horren aurrean, haurrak talde kaltetuenen artean daude; bereziki, haur eta nerabe errefuxiatuak, lekualdatuak edo itzuliak. Askok ez dute hezkuntzarik, espazio segururik, oinarritzko ur- eta saneamendu-zerbitzurik, osasun-arretarik, babes psikosozialik, eta, askotan, **indarkeria**, esplotazioa, **desnutrizioa edo gaixotasunak** izateko arriskua dute.

Eremu horretan esperientzia duten erakundeek, hala nola Entreculturas eta Alboan erakundeek eta Errefuxiatuentzako Zerbitzu Jesuitak (JRS), esku-hartzeak egin dituzte, eta ekintza horiek premiazkoak direla egiaztatu dute.

Proiektu honek errefuxiatuen eremu eta kokalekuetan eta harrera-herrietan esku hartzea proposatzen du, hala nola Makpandu (Mendebaldeko Equatoria estatua) eta Maban eremuetan, hau da, barne-desplazatuaren kokalekuetan, haurtzaroa ardatz hartuta, eta lehentasuna emanez haur eta nerabe errefuxiatuei, itzuliei edo barne-desplazatuei, bai eta haien familiei eta komunitateei ere.

Proiektuak **465 pertsonari (272 emakume eta 200 gizon)** lagunduko die, eta lehentasuna emango die errefuxiatuei, itzulitakoei eta barne-desplazatuei, haur eta nerabeei, desgaitasuna duten pertsonen eta egoera ahulean dauden eta sexu- eta genero-indarkeriatik bizirik atera diren emakumei, larrialdi-egoeran eta haurtzaroan lehentasuna izanik.

Esku-hartze honen bidez, krisiaren berehalako ondorioak arintzeaz gain (gabetzea, babesgabetasuna, zaugarritasuna), gatazkapean jaio edo hazi den belaunaldi baten **garapena, erresilientzia eta etorkizuna bultzatu** nahi ditugu. Belaunaldi hori giltzarria izan daiteke Hego Sudanen berreraikuntza sozialerako, bakerako eta egonkortasunerako.

Kongoko Errepublika Demokratikoa



Kongoko Errepublika Demokratikoko ekialdeak munduko krisi humanitario larrienetako eta luzeenetako bati egin behar dio aurre. Muturreko indarkeria, desplazamendu masiboak eta haurren eskubideen urraketa sistematikoak dira krisi horren ezaugarriak. 2025eko urtarilean, Goma eta Bukavu hiriak hartu zirenean, gatazka areagotu egin zen, eta **2,5 milioi haurrek baino gehiagok desplazatu behar izan zuten**; ehunka eskola, berriz, babesleku gisa erabili ziren, eta **375.000 adingabe baino gehiago** utzi ziren hezkuntzarako aukerarik gabe.

Errefuxiatuentzako Zerbitzu Jesuitak (JRS) etengabe lagundu die errefuxiatuei, lekualdatuei eta komunitate ahulei, eta laguntza eman die hezkuntza formalean eta informalean, laguntza psikosozialean, larrialdietarako laguntzan, bizirauteko bitartekoetan, babesean eta adiskidetze-programetan Ipar eta Hego Kivun.

Azken urteetan, 41.000 pertsonari baino gehiagori egin diete mesede hezkuntza-programek, eta ikuspegi berezia izan dute hezkuntza inklusiboan, irakaskuntza-prestakuntzan eta neskatoei eta gazteei laguntzean.

Testuinguru horretan, proiektuaren helburua da **2.000 haur** ingururen ongizate psikologikoa eta erresilientzia hobetzea, desplazatuak, aberriratuak eta harrera-komunitateetako adingabeak barne, laguntza psikosozialeko, prebentziorako eta abusuen aurrean erantzuteko saioen bidez, bai eta aisia- eta jolas-jardueren bidez ere, Goma inguruko **10 eskola publikotan**. Gainera, irakasleei laguntza psikosoziala eskainiko zaie, eta kirol- eta kultura-txapelketak antolatuko dira, jolas-kitak banatzearekin batera, adingabe onuradunen hezkuntza-baldintzak eta bizi-kalitatea indartzeko.

Korrika egin Kausa baten alde ekimenak gogorarazten digu testuinguru honetan **larrialdi humanitarioak, ingurumen-krisiak** eta ezegonkortasun politikoa elkarri lotuta daudela.

Konplexutasun hori ulertzea funtsezkoa da **oinarrizko eskubideak** bermatuko dituzten konponbide iraunkorrak eraikitzeko, batez ere testuinguru ahulenetan bizi diren **haurrentzat**.



GJH-EI LAGUNTZEN

